

- Heziketa proposamen honen garapenari begira, **hainbat lan-saio** hartu dira aintzat Lehen Hezkuntzako heziketa etapan zehar. Nolanahi ere, 10-12 urteko haurrei zuzendu dira bereziki jarduera gehienak.
- Honenbestez ez da baliabide didaktikoen **banako** erabilera baztertzen. Gainerakoetatik bereiz bideratu ahal izateko moduan diseinatu dira.

- Ekimenaren fase handietako bat (taldea sortu, ideiak eduki, antolatu, ebaluatu eta koordinatu) hartzen du aintzat unitate didaktiko bakoitzak. Sarrera egin zaio halaber zeharkako unitate didaktiko bati, komunikaziorako trebetasunak ere kontuan hartuak izan daitezen, ibilbideko edozein unetan bideratu behar baitira.
- Hainbat lan-saio edo jardueraren bitartez gauza daiteke unitate didaktiko bakoitza.
- Ageriko emaitzak dituen proiektu erreal baterantz zuzentzen da prozesu guztia, ikasleen partaidetza sustatzearren.